

MAILOPE TXIKI: Txantxariak **ERREPORTAJEA:** Hauteskundeak **HAIZEAK ERAMANA:** Ana Saralegi
BATZARRE: Gazte Martxa **LAUBURUA:** Atari digitalak **ERREPORTAJETXOA:** Erakusketa

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Denon erabakia ehuntzen

Altor Irastortza (Azpirotz)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Dagoeneko eskualdean erosi eta apaindutako oihal guztiak josita eta prest daude. Ekainaren 21ean Gure esku dagok antolatuta hautestontzi erraldoia osatuko da Iruñean.

04> Iritzia

08> Luze: Leire Aranburu

09> Zabal: Oskar Estanga



10 > Udal Hauteskundeak

Maiatzaren 24an udal ordezkariak eta ordezkari autonomikoak hautatzeko eguna izanen da. Eskualdeko lau Udaletako taldeekin izan gara amaitzean dagoen legegintza honetako balorazioa egiteko.

15> Kuxkuxean: Maiatzeko zorion agurrak



16 > Gazte Martxa

Ehunka gazte elkartu ziren Lekunberrin aurtengo Gazte Martxan parte hartzeko. Lekunberritik irten eta Irurtzunen gaua pasa ondoren Berriozarren ospatu zuten Aberri Eguna.

18> Elkarrizketa: Unai Artola



22 > Kultura galestarra ezagutuz

Hilaren 4tik 29ra bitarte Galesko landa-bizitzaren inguruko erakusketa izanen da Plazaolan. Gainera, egileek jendearen parte hartzea eskatu dute gure kultura ezagutu eta bigarren erakusketa bat prestatzeko.

24> Kirola: Arruizko Txikitoren omenezko Legoa

26> Kultura: Naturbideen Eguna

27> 20 urte bidean

28> Ekinaren ekinez: Azpikoetxea Landa-etxea

30> Haizeak eramana: Ana Saralegi

31> Kontu txikiak

Mailope doan banatzen da honako herrietan: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Nere Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, J.A. Garaikoetxea, EH Bildu Larraun, EH Bildu Lekunberri, Mikel Rekalde, Lekunberriko Taldea, Kristina Torres, Ana Saralegi, Nere Urbizu, Unai Ijurko, Miguel Inda eta Joxe Mari Zabaleta.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

TIRADA: 1.600 ale.



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Atzerritarrak

Ez dakit konturatu ote zareten, zenbait hedabide eta komunikabidetan, konparaziora, EITBn, estatistika datu batzuk ematen dituztenean Euskal Herriari buruz, batez ere Eguberri, Aste Santu eta udako oporren gainean aritzen direnean, aipatzen dituztenean bisitarien kopuruak, honako esaldiak erabili ohi dituzte, esate baterako, <Bisitari gehienak madrildarrak eta kataluniarrak izan dira. Gero, atzerritik, gehien etorri direnak ingelesak, txinatarrak eta frantsesak izan dira>. Bueno, bada, honela ikusita eta entzunda, ematen du atzerritarrak bakarrik direla Espainiako Estatukoak ez direnak, eta suposatuta beharko dugu, beste horrenbeste gertatzen dela Frantziako Estatukoekin ere. Orduan, esaldi horiekin zer esan nahi digute, adibidez, Galiziakoak, Andaluziakoak, Extremadurakoak, Landetakoak, Bretainiakoak, Normandia Beherekoak eta Pikardiakoak Euskal Herrikoak direla, alegia, ez direla atzerritarrak, edo, behintzat, ez direla argentinarrak, mexikarrak, kanadarrak, japoniarrak edota senegaldarrak bezain atzerritarrak? Hau da, pentsarazi nahi al digute lehenengoak ez direla euskaldunontzat erabat atzerritarrak eta bigarrenak, ordea, bai?

Nik dakidanez, historian zehar, Euskal Herriko pertsonaiei deitu zaie euskal herritarrak eta atzerrikoei, hots, Euskal Herrian ez jaiotakoei, atzerritarrak. Gero, jakina, badakigu norberak, nahi baldin badu eta, batez ere, uzten baldin badiote, aldatu ahal duela bere nazionalitatea. Baina, Euskal Herrian zer arazo dugu? Bada, denok dakigun bezala, bi Estatuak (Frantzia eta Espainia) gaituztela konkistatuak, kolonizatuak eta menperatuak; horixe da gure tragedia latza hitz gutxitan esanda. Noski, espainiarrak edota frantsesak direnek edo sentitzen direnek, ez digute holakorik sekula santan onartuko, baina euskal herritarrak garenok eta bertan bizi izateagatik hala sentitzen direnek, badakigu eskubidea dugula eta dutela aldarrikatzeko gure euskal herritartasuna, nahiz eta batzuek ez ontzat eman arrazoi politikoengatik, eta batik bat, indarraren arrazoiengatik.

Hortaz, hau guztia argi eta garbi utzi ondoren, ez dakit zer mesede egin nahi diguten euskal hedabide eta komunikabide batzuek, bi kontzeptuak nahasten dituztenean, alegia, esaterako, madrildarrak edota paristarrak atzerritartzat ez jotzen, eta bai, ordea, hegoafrikarrak eta suediarrrak.

Nik uste dut, Euskal Herriko hedabide eta komunikabideek argi eta garbi eduki behar dituztela kontzeptu hauek, batez ere euskaldunak, abertzaleak eta independentzia zaleak baldin badira, jende arrunta gehiago ez nahasteko eta ideiak argi eta garbi izan ditzagun.

Xanti Begiristain, Auritz

Manoliri agurra

Banan-banan egotea ezinezkoa denez. Manoli Larraiotzen familiaren partez eskerrak denoi une zailetan gurekin egoteagatik. Besarkada bat bere senarra (Patxi) seme-alabak, ilobak, bilobak eta birbilobak.

Plazer handia izan da guretzat zu gure amañi izatea beti zenuen aurpegi ona ta umorearentzat tartea maitasuna banatzen zenigun eziñezkoa da ahaztea orain zuretzat heldu da unea zeruan iriki da atea zure falta sumatuko dugu agur amañi maitea Jox.

Bizitza gogorra izan arren lortu zenuen poztasuna famili zoragarria sortu banatuz alaitasuna guztioi zaindu izan gaituztu landuta elkartasuna zu maitazea errexa izan da guztiz merezi zenuena beti izango zaitugu gogoan agur amañi kuttuna Imanol.



Galartza-Larraiotz familia

Hostal
Betelu
<http://www.hostalbetelu.com>
Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak
Etorri eta
on egin!
Erreserbak:
948513026
676145637

BETELU
PNEUMATIKOAK
TAILER MUGIKORRA
NEUMATIKO ALDAKETA
ZULATZEEN KONPONKETA
Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA
IBILGAILU BERRIAK ETA ERABILIAK SAIGAI

GRUAS Y TALLERES LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Larraungo Udalak onartutako mozioak:

- **Larraungo udal garbitasuneko eta osasun zerbitzuetako etxearen garbitasuna egiten duen lanpostuaren inguruko adjudikazioa edo kontratazio laboraleko xehetasunak eta argibideei buruzko txosten eskaera.**

Erabakia:

1. Larraungo udal batzarrak eskatzen dio idazkariari, txosten juridiko bat egiteko, non bertan aztertu dadin:

1.1. Larraungo udal garbitasuneko eta osasun zerbitzuetako etxearen garbitasuna egiten duen lanpostuaren inguruko adjudikazioa edo kontratazio laboraleko xehetasunak eta argibideak emanez: Bertan irregulartasunik badagoen edo ez argituz. Eta irregulartasunak baleude, zehaztea, hauek zuzentzeko jarraibideak zeintzuk izan daitezkeen.

2. Mozio honen berri larraundarroi jakinaraztea.

- **Eguneko Zentroaren eta pisu tutelatuen eraikinaren kontuen gaurkotzea.**

Erabakia:

Txosten Juridiko-ekonomiko bat eginaraztea Larraungo Udaleko Idazkariari, aurkeztutako kontuak eta espedientean agertzen diren guztiak kontuan hartuko ditularik (eskriturak...).

Txostena egin eta gero, Hiztarmenak dioen bezala, Eguneko Zentroaren puntua gaurkotu beharko da eta horretarako Batzorde Mistoa deituko da.

Mozio honen berri ohiko moduan larraundarroi jakinaraztea.

- **2015eko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna. Adierazpen instituzionala.**

Erabakia:

Larraungo Udaleko hautetsiak, emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu lan egiten jarraitzeko konpromisioa hartu nahi dugu:

1. Gure herrian biolentziarik gabeko bizitza bizitzeko eremua izateko bitartekoak jarritz.
2. Emakume elkarte eta mugimendu feministarekin elkarlana bultzatuz.
3. Gure herriko emakumeak bizitza merezi duten bizitza duinak izateko politikak garatuz.
4. Martxoaren 8an gure herrian mugimendu feministak deituriko manifestazioarekin bat egiten dugu.
5. Mozio honen berri ohiko moduan larraundarroi jakinaraztea.

GARAIZ Zure behar eta ordubegira moldatutako gara

ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZKI!

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika inglesa
lengua kimika
euskera marrazketa teknikoak
historia unibertsitate mailako ikasgaiak

948 504 450
648253521

ALBI Taberna-kafetegia
Eguneko menua, jai egunetako menua,
bokatak eta pintxoak
Herriko plaza, 948 604 554,
Lekunberri

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalena, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Aitor Irastortza (Azpirotz)



*Hauteskunde garaia
oso hurbil dugu
bihurtuko zaiguna
mugarri seguru
bozketan erabiliz
bihotz eta buru
euskal garaipena da
niretzat helburu*

*Aldaketa garaia
omen dugu antza
eta nahiz ez gustatu
partiduen dantza
UPN erortzea
nire esperantza
ta Bildurentzat bozka
ez izan zalantza*

Ioseba Goikoetxearentzat puntua:

Gure eskuetan da
gure etorkizuna

Oinak:

oinarria, irria, berria, Euskal Herria



Doinua: "Orain hasi bihagu"

- 6 -



HERRI URRATS 2015

Maiatzaren 10ean ospatuko da Herri Urrats jaialdia Senperen. Aurtengoan Ziburuko Kaskarotenea ikastolarentzat izanen da bildutako dirua. Urtero bezala autobusa izanen da joateko. Lekunberriko frontoitik goizeko zortzietan aterako da. Txartelak Mitxasenean eta Euskara Zerbitzuan daude salgai hilaren 4a arte, 10 euroren truke. (16 urtetik beherakoek gurasoen baimen sinatua aurkeztu beharko dute).



EUSKAL HERRIA MENDI ERRONKA


Dagoeneko ireki da aurtengo lasterketan izen emateko epea. Maiatzaren 30ean goizeko zortzietan izanen da irteera Leitzako plazatik eta iluntzean amaituko da proba leku berean. 65 kilometro izanen dira guztira 7.000 metroko metatuarekin. Ibilbidea: Leitz-Guratz-Gorriti-Arribe-Gaintza-Irumugarrieta-Albi-Artxueta-Lekunberri-Etxarri-Ireber-Kornieta-Leitza. Eman izena www.kirolprobak.com atarian.



UDABERRIKO BIGARREN ESKUKO AZOKA

Maiatzaren 16an eta 17an bigarren eskuko azoka izanen da Lekunberriko frontoian. Animatu eta eman izena maiatzaren 10a baino lehen eta Udalak bi mahai eta aulki pare bat utziko dizkizu zure postua jartzeko. Animatu!

Gazteak mugiaraziz



Aitor Irastortza

Kaixo Mikel! Zer moduz? Ni oraingoan bereziki inporta zaidan gaiaz hitz egiteko desiotan nago: gazte mugimenduaz eta bereziki gure eskualdekoaz. Duela urte gutxi izan nuen Lekunberri – Larraungo Gazte Asanbladaren berri eta zeharo harrituta geratu nintzen hemen horrelako zerbait egon zitekeela jakitean. Hasieran nire beldur eta zalantzak neuzkan, baina egun batean asanblada batera joatea erabaki nuen. Asanbladako

“Eskualdeko gazte mugimenduaren susperraldia datorrenaren susmoa dut”

pertsonaren bat ezagutzen nuen aurrez, baina beste asko bistaz besterik ez. Bertan antolatzen ziren gauzak nahiko arrotzak egin zitzaizkidan hasieran, baina helburuak zein ziren ikusirik, horiekin bat egin eta poliki-poliki nire altxoa jarriz joan nintzen. Ilusioz hasiriko bide horretan, Araitx eta Betelukoekin elkarlanean aritzeko proposamena iritsi zitzaigun eta horrela sortu genuen Mai-lope Gazte Asanblada. Dena ezin hobeki joan zen, ezta adiskide? Gero eta kide gehiago elkartzen ginen asanbladetan, jendea gogotsu zegoen eta hilero antolatzen genuen ekintzaren bat. Gorakada guztiek izaten dute beraien gaina ordea, eta guk ere harrapatu genuen horietako bat. Denborarekin errutina batean sartuz genbiltzala ohartu ginen eta gure ekintzen zergatiaz eta asanbladaren helburuak finkatu beharraz hausnartzen jardun genuen. Horri, partaideon bizimodu aldaketak gehituta, beherakada bat etorri zen asanbladen eta ekintzen maiztasunean. Ernai gazte antolakundeko talderen bat sortzeko saiakerak ere egin ziren, baina ez dute nahi adina fruitu eman. Gauzak honela, aurtengo kinto eguna iritsi zitzaigun. Egundak aspalditxo itzalia nuen ilusioa berpiztu zidan. 120 pertsona elkartu ginen bazkaltzeko eta gazte martxa antolatzeko 30 boluntariotik gora ere animatu ziren. Horren ondoren, ia 2.000 euskal gazte etorri ziren Euskal Herri guztitik Lekunberri eta Berriozar artean egin zen gazte martxan parte hartzeko. Honek guztiak, eskualdeko gazte mugimenduaren susperraldi bat datorrela susmatzera narama; ea horrela den! Zuk nola ikusten duzu egoera Mikel? Gora euskal gazteria!



Mikel Alvarez

Aupa Aitor! Badakit bereziki gustukoa duzun gaia dela oraingo honetan plazaratu duzuna eta gainera, guztiz beharrezkoa dela iritzi dut. Gure haranak bizitzeko bere jendearen parte hartzea behar du eta ez soilik, batzuek pentsatzen duten moduan, aisialdi edota jai aferetan. Edozein gauza kolektibo erabakitzeko, herrietako jendearen presentzia, iritzia eta aktibitatea elementu derrigorrezko bezala kontsideratu behar genuke. Aldizkari hau ere horretan dabil, herrien inguruko informazioa ematen, herrietako kolektibo ezberdinen arteko sarea josten eta orokorrean, eskualdearen bizitza

“Soluzio bakarra bidea egiten joatea da, bidea helburua bezain garrantzitsua baita” -7-

bera eraikitzen. Horrela bada, elementu edo indar hori antolatzea izan behar da gure eginkizuna, Aitor, izan ere, hori gabe galduak gaude. Kanpoko esperientziek lagundu gaitzakete, hala nola, orain dela gutxi izan ditugun 2.000 gazte horien adibideak. Gainera, esan beharra dago geure inguruko gazte anitz ikusten zela ere mobilizazio horretan parte hartzen. Argi eta garbi dago geure



eskualdean gazteak egon bagaudela eta ez hori bakarrik, baizik eta gauza oso politak egin ditzakegula elkarrekin. Potentziala, beraz, hor dagoela esan genezake. Hala ere, nik esango nuke Aitor ez genuela bere garaian asmatu potentzial hori benetako gazte alternatiba bihurtzen; nire iritzia da eta ez dakit ados egongo zaren. Ez nik, ez zuk, ez inork ez du horretarako formula magikorik, besteak beste ez dagoelako formula magikorik afera honetan behintzat. Soluzio bakarra bidea egiten joatea da eta bide horretan topatuko ditugun adiskideak eta uneak gozatzea, soilik horrela eraikiko baitugu nahi duguna. Eta ez ahaztu bidea helburua bezain garrantzitsua dela. Hurrengo belaunaldiek jasoko duten oparia da eraiki dugun horren bertuterik garrantzitsuena, etorkizun hobeto eta itxaropentsuago bat alegia.



Leire Aranburu

LUZE

Ni-ni belaunaldikoa izan nahi dut

Historian zehar, garai, mende, nahiz arlo ezberdinetan belaunaldi ezberdinak ezagutu ditugu, horren adibide dira 27ko belaunaldia, Espainian 20ko hamarkadan ezagun egin ziren idazle eta intelektual taldea, besteak beste Federico Garcia Lorca idazle ezaguna partaide zuen taldea. Literaturarekin erlazioa duen beste belaunaldia 98ko belaunaldia zen, Unamunoren edo Machadoren beraren belaunaldia.

Baina idazleenak ez dira ezagunak diren belaunaldi bakarrak, badira beste batzuk ere, istorio tristeagoa dutenak, hauetako bat da 80ko hamarkadan Madrildo "mobidan" heroinaren eraginak jasan zituztenen belaunaldia.

Gaur egun ezaguna dena berriz ni-ni belaunaldia da, ez ikasketarik ez lanik ez duten horien belaunaldia, gurasoen edo eta familiaren kontura bizi direnena. Bai hala da, gaur egun egoera horretan dauden pertsona asko dago munduan, gehienak gazteak, ez denak. Baina gazte guztiak ez gara berdinak eta batzuetan hori ahaztu egiten zaigu, batzuk, nazkatuak gaude gutaz hitz egiten dutenean irudi hau saltzen dutela ikusteaz.

Bai, gazteak gara eta asko dira gure antzekotasunak, gure ezinegonak... Gure nortasuna ezagutu nahi dugu, gure ilusio eta nahiei jarraika burugabekeriak egiten ditugu, egunez egunez

“Gazteok, gure geuk eraiki behar ditugu gure esperientziak”

koa bizi nahi dugu, eta nork ez du inoiz ametsik egin? Horrek ez du esan nahi denak berdinak garenik edo zaku be-rean sartu behar zaigunik.

Gaur egun gazteok kritikatuak izaten gara maiz, askotan botatzen dizkigute... Dena egin ematen zaizue... Edo... Zenbat eta gehiago eman orduan eta gehiago eskatzen duzue... Bezalako esaldiak. Ez dut ukatuko arrazoi pittin bat duela, gaur egungo baliabideak eta duela urte batzuetakoak ez dira berdinak, orduko egoera eta gaur egungo egoera maila berdinean jartzea ez litzateke bidezkoa izango. Baina gazteon alde defentsa txiki bat egitea gustatuko litzaidake.

Gazteoi, alde batetik esaten digute, gaurko gure ekintzek gure etorkizuna zein den finkatuko dutela, eta mundu honen etorkizuna gure eskuetan

dagoela. Hitz hauek guran eragin bat sortzen dute. Gutaz asko espero dela ikusten dugu eta erakutsi nahian presiopean gaude uneoro. Ondo ariko naiz? Nahikoa izango da? Askotan gure benetako nahiak alde batera utzita, besterik gabe, gutaz espero dena egiten dugu. Bestalde, gure saiakera eta ahalegin guztiak alferrikakoak izaten dira askotan, aukerak oso urriak dira eta esperientzia falta dela eta gure protestak, pentsamenduak, nahiz irizkiak batzuetan ez dira hain garrantzitsuak izaten.

Hau gutxi balitz bezala agintarien ahotik entzun behar dugu gazteen alde egiten dutela, aurrerapenean sinesten dutela, baina gure laguntzak behera eta prezioak gora doazela besterik ez dugu ikusten eta bidegabekeria hauen aurka protesta eginez gero zigortuta bukatu dezakegu. Beraz askotan isildu egiten gara.

Hau guztia idatzi dut apur bat huteskunderen harira. Ez dut propagandarik egin nahi, gazteei berekoiki izateko eskatu nahi diet. Gazteak gara bai, agian ez dugu bizi esperientzia nahikoa baina gure geuk eraiki behar ditugu gure esperientziak, horretarako, gure interesen arabera jokatu behar dugu, gai izan behar nire bizitza-nire irizkiak belaunaldia sortzeko, ni-ni belaunaldia hain zuzen ere.

SASTraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
[azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...]

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
[prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...]

Industrialdea, 9 31870 Lekunberri 948.60.48.06 Iñigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarra Korrespontsala

948513056
699179437

aitzberri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com



Kontakt inprobisazio dantza

Festetan musika jartzen aritu nintzeanean, oso nekatuta bukatu nuen gure ohiko parrandaz. Parrandan nenbilenen ere nabaritzen nuen zer edo zer astuna egiten zitzaidala, baina musika jartzean ikusi nuen zer zen nekatzen ninduena. Musika altu, gauean aurrera nekea, mozkorkeria gehienetan, betiko moldeetatik ateratzeko (euskal koadrila borobila) a ze lanak! Gaueko momentu ederrenak dantzatzean sortzen ziren, harreman berriak egitean... Baina horiek gertatzeko, a ze lanak!

Bestelako testuinguruen bila hasi nintzen orduan eta hor topatu nuen kontakt inprobisazio dantza. Lagun batzuekin hasi nintzen aurrena, gero ikastaro bat egin eta gero Donostian eta Bilbon egiten diren saio irekietara joaten hasi nintzen. Dantza honetan, nork bere burua, espazioa eta dantza kideen kontaktua oinarri hartuta, mugimendua sortzen eta garatzen da. Ohituak gauden patroietatik pixka bat at dago kontakta, gorputzak elkar ukitze-ko ohitura gutxi dugulako, eta bestetik zer egin behar dugun jakin gabe gauzak egiten ere ohitu gabe gaudelako...

Asko dira kontaktarekin nabaritu ditudan onurak. Alde batetik, nire gorputzaren kontzientzia handia eman dit, mugitzen, lantzen, besteak entzuten... Gorputza berrantolatu didala esan dezaket, arnasketaren oharpena, giharrak indartu, oreka, lurreko mugimenduak, malgutasuna... Bestalde, gorputz entzumenaren ere asko garatu dut, nola sentitzen dut nire burua, nola ukitzen ditut besteak, nola sartzen naiz espazioetara...

Eta kontaktua inguruan nituen tabu pila bat ere puskatu dizkit. Alde

batetik, kontaktuari beldurra kentzen lagundu dit, batez ere besteekin kontaktuak (eta erakargarritasuna sentitzen badut, gehiago) "zerbait gehiago" esan nahi duenaren mitoa eroriarazi dit. Kontaktua gauza bat da, eta gero

“Asko dira kontakt inprobisazio dantzarekin nabaritutako onurak”



etorri daitekeena beste bat, baina ez du bata bestearen jarraipena izan behar nahi eta ez. Bestalde, kontaktarekin elkarrizketa oso sakonak daude pertsonen artean, eta horien ondorioz konfiantza berezia sortzen da, sexualitate harago doan zerbait. Ongizate handia izatera iristen da.

Ederra da dantzarako eta erlazionatzeko beharra gizakiaren "logika osasuntsuaren" barruan egitea ere. Saio gehienak egunez izaten dira, alkoholik gabe, jende jatorrarekin, leku politetan, musikarik gabe (benetan gure buruak entzuteko) edo musika eder askorekin, ondoren elkarrekin jaten dugu... Mundu guztian zabaldua dagoenez, jaialdi eta ikastaro pila bat daude, oportetarako eta jende jatorrarekin egoteko aitzakia paregabea dira kontakt jaialdiak, gorputza eta arima zainduz garenaz gozatzeko.

Esan bezala Euskal Herrian badaude dantza egiteko hilabeteroko gune batzuk, Donostia, Bilbo, Iruñea, Gasteiz... Bertara goazen jende asko ezagutzen joan gara eta elkarrekin gauzak egiteko EHKIE (Euskal Herriko Kontakt Inprobisazio Elkarte) sortu dugu. Aurreko urtean Aretxabaletan egin genuen aste-buru guztiko topaketa bat, 60 pertsona inguru ibili ginen bertan. Aurten Irurtzunen egingo dugu maiatzaren 22, 23 eta 24an.

Udalak eskolako gimnasioa utzi digu dantzatzeko, psikomotrizitate gela lotarako, Pikuxarren otorduak, ostiral gaue- tik igande eguerdira arte guztientzako dohaineko ekintzak antolatu ditugu, larunbat gauean performanfa egingo dugu Pikuxarren, igande arratsaldean plazan saio publiko bat... Aukera asko ditugu, beraz, gure burua eta ingurua nola gustura egon lantzeko bidean beste urrats bat da hau, azkenean, modu batera edo bestera, ongi eta errespetuz bizitzea delako kontua, elkarrekin kontaktu ona izanez, ez al da hala? Gonbidatuak zaudete mugitzera!

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



Erabaki eta bozkatu

- 10 -

Maiatzaren 24an izanen dira hauteskondeak, bertan aukeratuko dira udal ordezkariak eta ordezkari autonomikoak. Lau urteotan eskualdeko udaletan lanean ibili diren taldeekin egon gara amaitzean den legegintzaldi honetan eginikoaren balorazio txiki bat egiteko. Zerrendagaiak ere dagoeneko publiko egin dira eta Araitzen ez da talderik aurkeztu.

► Larraungo Elkarteak

Aurreko legegintzaldia lau zinegotzirekin hasi zuten, Javier Legarra alkatearekin batera Martin Juanena, Mikel Berekoetxea eta Joseba Artzeluts. Azken bi hauek ondoren taldetik banatu egin ziren.

Legegintzaldi honetan krisia, batez ere krisi ekonomikoa, izan da protagonista, bestelako alorrean eragin baitie. Udalaren kudeaketan ere eragina izan du eta oinarrian egun eskaintzen dituen zerbitzuak mantentzen eta hobetzen saiatu gara, baita zerbitzu berriak sortzen ere, batez ere Gizarte Zerbitzuekin lotutakoak eta inolako zergarik, tasarik edo kargarik handitu gabe. Horra hor legegintzaldi honetan garatutako zenbait gai:

-Lurralde Antolaketaren Estrategia eta Eremuaren onarpena. Txostena geldirik zegoen eta Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntza bueltatzeko arriskua. Behin Garapen Estrategia onartuta eta izapideak jarraituz soilik Udal Egitasmoaren berrikuspena zehaztea baino ez da falta.

-Udal Egitasmoaren izapideetan akats larri bat izan zela jakin genuen, ez baitziren ofizialki argitaratu ez 2000. urteko Udal Egitasmoa eta ezta 2005 eta 2007ko bi aldaketak ere. Egun argitaratuta eta zuzenduta daude. Bigarren txandako aldaketa argitaratzea falta da, Departamentuko teknikariekiko negoziatzen gabiltza.

-Burundegiako proiektua gehiengoarekin onartu egin da,

nahiz eta alegazio eta gogoeta batzuk egon ziren tarteko.

-Gabari Etxea. Eraberritzeko lanak geldirik daude. Esleitua izan zen eraikuntza enpresa desagertu ondoren, txostenak bere bidea oso motel jarraitu du, batez ere kontu juridikoen-gatik. Orain arte egindako lanen Akta egin behar da kontratazio txosten berri batekin hasteko, baldintza berrieekin eta balorazio tekniko berri batekin. Hala ere lanak geldirik egon diren bitartean, berriz negoziatzeko aprobetxatu da eta azkenean Nafarroako Gobernuko Ogasun Departamentuko Ondarearen Sailarekin egindako Hitzarmen baten bitartez akordio batera iritsi gara eraikinaren erabilerean lagapenari dagokionez.

-Aldazko Harrobia. Dena Harrobia Ustiatzeko Proiektu baten Hirigintza Baimena ukatu zutelako hasi zen, hirigintza arauak betetzen ez zituelako. Bilera eta txosten askoren ondoren gehiengoarekin erabaki eta onartu zen 28.3 Hirigintza Araua aldatzea behar berrietara egokitu eta 2005. urtetik geneukan filosofiarekin jarraitzeko.

-Urteko kontuak. Nahiz eta krisia dela eta diru-laguntzengatik izandako diru-sarrerak oso murriztak izan diren, urteroko

emaitza ekonomikoak positiboak izan dira gastuen kontrol zorrotzarekin jarraitu delako.

-Eguneko Zentroa eta Etxebizitza Tutelatuak. EULEN enpresak kudeaketa utzi ondoren, bi Udalek bi egitura eta zerbitzu horien kudeaketa adostu eta sustatu zuten. Bi proiektu horiek duten koste ekonomikotik harago oso zerbitzu garrantzitsuak dira, gero eta behar handiagoa baitago haraneko kontzejuetako herritarren artean.

► Larraundarrak

Larraun Bai izenarekin osatu zen taldea aurreko legegintzaldian, hiru zinegotzirekin, Pedro Mari Barberia, Joxe Mugiro eta Juan Berasain.

Gure balorazioa ezkorra da oso, aurreko legegintzaldiarekin jarraitu nahian Larraungo Elkarteak alkatetza bozka gutxien jaso zituen udal taldeari eman zion, ezker abertzaleari eta horrek larraundarroi gure ondasunen 1.232.000 euroko kostea ekarri zigun, Lekunberrin lurpean amaitzeko bi taldeek onartutako hitzarmenari esker eta gu erabat aurka egonda. Horren ondorioak denbora askoan ordaindu beharko ditugu, diru hura behar bezala kudeatu izan balitz Larraun osatzen duten Kontzejuetako gabezia ugari konpondu ahal izango zirelako.

Aurreko hauteskundeetan bi taldeak Larraungo Elkartea izenpean aurkeztu ziren eta argi ikusi da batzen zituen ideia bakarra gure taldea, LARRAUNDARRAK, alkatetzara iristen ez uztea zela, handik hilabete gutxira lautik bi zinegotzi gure taldearen babesa bilatzen hasi baitziren alkatea ordezkatzeko.

Legegintzaldi honen irudi grafikoa Gabari etxean ikus daiteke, hiru urte baino gehiago pasa dira Pagocelay-k lanak utzi zituenetik eta ez dira gai izan amaitzeko, Larraungo sarrera nagusiak aurkezten duen itxura txarrarekin. Bestalde, ez dira gai izan bi legegintzalditan Hirigintza Arautegi berriaren izapideak amaitzeko ere, epe guztietatik kanpo gabiltza, Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntza bueltatuarazteko arriskuarekin.

Alkatetzaren taldea zatitu zenetik, ezker abertzalekoak direla dioten batzuk mozio ugari aurkezten eman dute denbora, beste instituzioetan aurkezten direnen mozio berdinak hartu eta kopiatuz, horietako gehienak udal gaiekin zerikusirik ez dutenak gainera.

Eguneko Zentroaren funtzionamendua zapuzten ere ibili dira, sei etxebizitza tutelatu eraikitzeko 27.000 euro jartzearen kontra bozkatzuz, eta kontuan hartuz aurreko legegintzaldian 170.000 euro jarri zituztela eta etxebizitza horiek gabe

-Proiektu Sozialak. Gizarte Zerbitzuekin ere elkarlanean aritu gara zenbait proiektu martxan jartzeko, heziketan, droga-menpekotasunean, taxibusa... Bestalde, udako langileen kontratazioarekin ere jarraitu da, enplegua sustatuz Enplegu Zuzen eta Aktiboa, Iturraskarri Proiektua eta bestelako programen bitartez.

bideragarria ez dela jakinda. Aldazko harrobiaren gaiarekin ere, zergadunen milaka euro xahututa beraiek eskatutako txostenetan beraiek posizioa justifikatzeko eta ez soilik Aldazten kalterako, baita Larraungo gainontzeko herrien kalterako ere.

Hauek dira LARRAUNDARRAK taldean hurrengo legegintzaldirako ditugun helburu nagusiak:

Gabari etxeko lanak amaitzea, Larraunek Nafarroako Gobernuarekin duen hitzarmena betetzeko. Ezin ditugu eraikin horretan ditugun eskubideak galdu eta horrela bere jabetza eskuratuko genuke.

Behingoz Hirigintza Arautegien izapideak amaitzea eta beharrezko diren izapideekin jarraitzea Aldazko Kontzejuek bere harrobia ustiatu ahal izateko. Ez gaude prest Kontzeju horri ez beste inori bere baliabideak ustiatuz eskura dezaketen onurak kentzeko.

Ezer positiborik ekartzen ez duten ohiko gastuak murriztu eta zerbitzuak hobetzeko erabiltzea, batez ere hirugarren adinekoei zuzenduta daudenak.

Nafarroako Gobernuari eskatzen jarraitzea eskola barrutia alda dezan eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko Ikastetxe erreferentziaduna Leitzako Amazabal Institutua izan dadin.

Larraungo kontzejuei ekonomikoki ahal den neurrian laguntzea, batez ere baliabide gutxien dituzten horiei.

Aldaketa bat proposatuko dugu Astizko Koben Elkarte Publikoaren kudeaketan, geroz eta bisitari gutxiago dituelako eta urteko defizita gora doalako, urtean 46.000€ eta horietatik Larraunek %50eko ekarpena egiten du.

ElIOZ gutxiengo legalera murriztea, %2ra, etxebizitza zaharren berritzea sustatzeko.

Garapen sozioekonomiko sostengarria ekarriko duten edozein proposamen eta ekimen laguntzeko prest gaude.



► EH Bildu Larraun

Aurreko hauteskundeetarako ez zuten Bilduren talderik ateratzea lortu Larraunen eta sortu zuten Larraun Bat taldea ilegalizatu egin zenez, ezker abertzaleko kideek Larraungo Elkartearekin egin zuten bat hauteskundeetan, nahiz eta gero sortutako desadostasunengatik Mikel Berekoetxea eta Joseba Artzeluts zinegotziek taldea utzi eta Ez-Atxikituak taldean aritu 2013ko urtarrilaz geroztik.

EH Bildu lehenbizikoz aurkezten da Larraungo Udalera. Orain artekoaren balantzea egiten hasita, ez genuke jakingo esaten zein izan den Udalaren lana. Eta uste dugu larraundar gehienek ere antzeko irudipena dutela. Larraungo Udala urruti egon da herritarrengandik, urruti kontzejuetatik, eta ez ditu bete berez dituen zereginak: ez du informaziorik bideratu etxetara, ez du neurririk hartu Larraunen bizi duen problematikari irtenbideak emateko (populazioaren zahartzea, kontzejuekin harremanak, gazteentzako etxebizitza falta, baserritarren etorkizun gordina, jarduera ekonomiko apala, kultur dinamika eskasa...).

Aurrera begira, herritarren ekarpenekin, proiektu sendoa prestatu dugu. Larraun BIZIBERRITZEA da gure asmoa, eta hauek dira ardatz nagusiak:

-Herritarrak informatzeko bideak jartzea: bilerak, buletinak, webgune dinamikoa.

-Udala eta kontzejuak biltzeko eta etorkizuna elkarrekin lantzeko Larraungo Batzarra sortzea.

-Etxebizitza politika berria eta orekatua bultzatzea, kontzejuetatik abiatuta: Udalak erraztasunak emanen ditu eta inbertsioak eginen ditu etxe zaharrak berritzeko. Gazteak herrietan gelditzea lortu nahi dugu.



-Garapen Plan bat jarriko dugu abian herritarren parte-hartzea oinarri izango duena. Larraun biziberritzea izanen da helburua, ekonomikoki, sozialki eta kulturalki.

-Kontzejuetan gune sozialak indartzea eta udalerrian erabilera anitzeko espazio bat sortzeko aukera aztertzea: ekitaldiak egiteko, jendea eta taldeak biltzeko...

Lanerako gogo eta proiektu sendo batekin gatoz. Ausartak izateko garaia da, eredu zaharrak gainditu eta aurrera begira jartzekoa. Herritarrok garaile izango duen Larraun da gure apustua.

► EH Bildu Lekunberri

Bildu Lekunberri izenarekin eta hiru zinegotzirekin osatu zen bukatzeaz den legegintzaldirako bigarren taldea Lekunberrin. Mikel Betelu, Maitane Urbizu eta Miren Aisa hasi ziren zinegotzi, ondoren Mirenek kargua utzi eta Maialen Ruizek ordezkatu zuen.



Eredu parte-hartzailea, kudeaketa gardena eta elkarlana sustatzeko prestutasunarekin aurkeztu ginen Lekunberrin. Eta bide horretan urratsak egin ditugu: parte-hartze prozesuak martxan jarritz, kudeaketa proposamenak bideratuz (egoera ekonomikoan, proiektuetan, batzordeetan...) eta herritarrak gardentasunez informatuz. Eta elkarlanerako prestutasuna ere agertu dugu parte-hartze araudia adosteko edo herritarrekin bilerak egiteko. Udalean egoera ez

da samurra izan. Gai batzuetan ados egon gara: auzo konpostan, enpresa publikoaren sorreran... Baina herritarren interesen kontra joan direnetan, desadostasuna adierazi dugu: zergen igoera handiak (4 urtetan KPIa %5 inguru igo da; Lekunberrin, Ura eta saneamendua %24 edo kontribuzioa ia %10), bideragarritasun plan baten falta (1.800 €ko zorra biztanleko), faktura ordaindu gabeak (300.000 € inguru), argiteriaren esleipen irregularra, gazte zentroaren kudeaketak sortu dituen ondorioak (500.000 € itzultzeko eskaria egin du Nafarroako Gobernuak), zabortezi zaharrek obra hasi gabeak, berdintasunean murrizketak... Horrengatik pentsatzen dugu aldaketa inoiz baino beharrezkoagoa dela.

Aurrera begira, Lekunberriren eta herritarren alde lan egitea da gure nahia eta gogoia. Lekunberri berri bat eraikitzea, herria eta herritarrak ardatz izango direnak. Udal parte-hartzaile eta gardena nahi dugu, garapen eredu jasangarria, bizitza arduratsua, osasuntsua eta kolektiboan sustraitua egongo dena. Eta gure kultura oinarri izango duena. Ausartak izateko garaia da, eredu zaharrak gainditu eta aurrera begira jartzekoa. Herritarrok garaile izango diren Lekunberri eraikitzea izango da gure apustua.

► Lekunberriko Taldea

Jose Mari Aierdi, Natalia Azkona, Salva Apezetxea, Esther Tabar, Javier Aldaregia eta Patxi Centeno ibili dira lau urteotan Lekunberriko udal talde agintedunean.

Azken lau urteak gogorak izan dira, krisiak, familiak eta jardura ekonomikoak udal zerga-bilketa asko baldintzatu du. Nafarroako Gobernuaren ekarpenak ere asko murriztu dira zerbitzu guztietan, nahiz eta beharrak geroz eta handiagoak izan.

Larraun eta Lekunberriko Udalen arteko Hitzarmenaren onurak azpimarratzekoak dira kirol eta kulturaren arloetan. Mendialdea Mankomunitatearen zerbitzu-eskaintza aldiz, oso poliki joan da.

Kirol zerbitzuak eta Eguneko Zentroa kudeatzen dituen enpresa publikoaren sorrera ere oso positiboa izan da, bi zerbitzu hauen eskaintzak handitzea ahalbideratu duelako alde batetik eta udaleko diruaren gastuak murriztea bestetik.

Kontsumitzailearen aholkularitzaren zerbitzua mantendu dugu eta energia gaietako aholkularitzako zerbitzu berria martxan jarri. Babestutako beste 28 etxebizitza bukatu ditugu, erosteko aukera duen alokairu erregimena eskaintzan sartuz. Cederna Garalurren berregituraketan eta honen lurraldearekiko lekualdatzean lan.

Astizko Kobazuloari eta Plazaola Partzuergoari ematen zaizkien laguntza ekonomikoak mantendu ditugu. Eskolako jantokia erabiltzeko dirulaguntza mantendu dugu eta Haur Eskolaren finantziarioari ere aurre egin diogu. Eskola garraioari dagokionez, gurasoek egindako hautaketa kontuan hartu eta konpontzea ahalbidetu dugu. Bestalde, Mankomunitate eta Eskualde mailan euskararen normalizazioa lortzeko gure Udalak 80.000 eurotik gora jartzen ditu urtero.

Eguneko Zentroaren erabiltzaile kopurua nabarmen handitu egin da eta baita aktibitateen eskaintza ere. Sei pisu tutelatuak berriz bukatu eta aste gutxiren buruan alokatuta egon izanak badauka zeresana.

Martxan jarri dugun bideragarritasun planari esker Udalaren zorraren %38 murriztea lortu eta 2013 eta 2014 urteak soberakinarekin bukatu ditugu. 1,4 milioi euro kostatu den



ETAP-aren eraikuntza, 250.000 euro kostatu den Pisu Tutelatuen eraikuntza edo 200.000 euro kostatu den Iturritak kaleko zola-berritzea izan dira Udalaren inbertsiorik garrantzitsuenak. Gas Navarra enpresarekin egindako hitzarmenaren ondorioz eta entitate honen finantziarioarekin egindako gas-banaketa-rako sarea, bizilagunen eta enpresen onerako izan da.

Azkenik Udal Industrialdean enplegu sortze garrantzitsua ekarriko duten hiru enpresaren jardura garatzeko aukera emango duen lur salmenta aipatu beharra daukagu. Hau ez litzateke posible izango aurretik lurralde hauen urbanizaziorako egindako esfortzua egin izan ez bagenu.

- 13 -

► Bildu Araitz

Lazaro Goikoetxea, Oihana Berganzos, Cristina Askarai, Soiartze Lopetegui, Garazi Mikeo, Ignacio Lopetegui eta Jon Goikoetxea ibili dira legegintzaldi honetan Araizko Udalean.

Legegintza honetan, hainbat arlotan, gu sartu aurretik egindako bideari, jarraipena eman diogu. Besteak beste, Gizarte Zerbitzua, Euskara Mankomunitatea, UEMA, CEDERNA GARALUR, Kirol Mankomunitatea eta Aralar Udal Musika Eskolarekin aritu gara elkarlanean. Hauetan proiektu berriak ere sortu dira. Horren adibide dira, behar bereziak dituzten pertsonak lan munduan integratzea helburu duen Gizarte Zerbitzuaren Iturraskari proiektua, gazteei begira martxan jarritako taxi jai zerbitzua eta janari bilketa solidarioak...

Euskarak presentzia handia izan du gure egunerokoan: gaztetxoentzat sortutako bertso eskola edota UEMAK lagunduta herritarrekin sortutako Arnasgune tailerrak honen adibide dira. Kirolean, pilota eskola, zumba, umeentzako futbol tal-

dea eta Satorzulok bultzatuta elkarlanean frontenis txapelketak izan dira berrikuntzak. UDALBILTZAREN aldeko apustua ere egin da, zazpi herrialdeak batu eta normalizazioa lortzeko bidean.

Onartu berri den hirigintza planak protagonismo berezia izan du. Prozesu luze honek emandako fruituaren oinarri izan dira, besteak beste, haranako berezko izaera errespetatzea eta era berean, beharrezko egokitzapenak burutzea.

Oztopo ekonomikoek markatutako legealdi honek, ezinbestean erabaki gogorak hartzea behartu bagaitu ere, udal eta herriaren barne kudeaketak dakarren errealitatea ezagutzeko aukera izan dugu. Honek eskatzen duen ahalegin guztiaz konzienteeago eginaraziz.

► Arbide Taldea

Betelun Arbide Taldea ibili da agintean, bakarra kasu honetan. Mikel Rekalde alkatearekin batera udal taldea osatu dutenak, Ander Arraztio, Yolanda Areitio, Joseba Eskamendi, Asier Elizalde, Teodoro Otamendi, Igor Otermin Eguia, Arantxa Erbiti, Aitziber Otamendi eta Xabier Sotil.

Arbide Taldea da Beteluko hauteskundeetarako aurkeztuko den talde bakarra. Bere ezaugarri nagusia, talde independentea izatea da, herritar guztiei irekita dagoena. Ohi duen bezala, herritar guztiei irekita zen bilera bat deitu zuen eta handik atera da legegintzaldi honetarako hautagai zerrenda, lau aurpegi berrirekin.

Amaitzean den legegintzaldiko balorazioa egin hasita, krisia dela eta, ezin esan izugarria izan denik. Hala ere, zerbait azpimarratzekotan, ematen diren zerbitzu guztiak mantendu egin dira.

Inbertsioei dagokienez, Indianoetxean egin dakoak aipatu daitezke: igogailua eta solairu bakoitzeko komunak eraberritzea (120.000 € Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin). Esan behar da proiektu nagusiak azpiegitura proiektuak zirela (Antigua kalea eraberritzea, ur-biltegiko bide berria egitea eta hilerriko hobekuntzak). Nafarroako Gobernuak Azpiegiturako Plana geldotu zuen eta ondorioz, obra hauek ezin izan ditugu egin urte hauetan. Hastear dagoen legegintzaldian egingo direla espero dugu.

Amma Betelun sartutako 46.000 euroak ere aipatzekoak dira, Beteluko Udalak proiektu hau egonkortzeko duen konpromisoaren adierazgarri. Tabernako eraikuntzan hainbat hobekuntza egin dira: portxea, gas instalazio berria eta bi etxebizitzetako obra.

Bestalde, Hirigintza Egitasmo berri bat landu da eta duela gutxi aurkezpen publikoa egin zen. Orain herritarrek ekarpenak egiteko epea da. Ikuspegi ekonomikotik, Beteluko Udalak



zorra 100.000 eurotan murriztu du lau urtetan.

2015-2019 legegintzaldirako asmoak:

Ematen diren zerbitzuak mantendu.

Hirigintza planarekin aurrera egitea.

Azpiegitura proiektuak gauzatzea.

Taberna eraikuntzako teilatua eraberritzea.

Euskararen erabilera bultzatu normalizazioaren alde.

Aurtengo proiektu zehatzak hauek dira: Ikastetxeko goiko solairuko leihoak handitzea, Amma Betelu inguruko espazioa aisialdirako prestatzea eta komunaleko larreak (Irulegi eta Haiztitxo) garbitzea.

Maiatzeko udal hauteskundeetarako hautagai-zerrendak:

Lekunberriko Taldea: 1. Jose Mari Aierdi 2. Mikel Mikeo 3. Natalia Azcona 4. Uxua Huizi 5. Esther Tabar 6. Jaione Aldareguia 7. Patxi Centeno 8. Javier Lopez 9. Ana Prados

EH Bildu Lekunberri: 1. Mikel Betelu 2. Maialen Ruiz 3. Juan Mari Irastorza 4. Igor Mitxaus 5. Maitane Urbizu 6. Mario Lavin 7. Miren Tirapu 8. Juan Antonio Arretxea 9. Oihana Goigana

EH Bildu Larraun: 1. Mikel Huarte 2. Mikel Lasarte 3. Joseba Artzeluts 4. Jose Mari Astitz 5. Xabier Azpirotz 6. Ane Alustiza 7. Miren Goikoetxea 8. Arkaitz Zapata 9. Ainhoa Fernandez

Larraundarrak: 1. Jose Javier Barberena 2. Jose Martin Martinicorena 3. Pedro Manuel Barberia 4. Juan Berasain 5. Martin Jose Bildarraz 6. Jose Manuel Iriarte 7. Maria Consuelo Aizpurua 8. Javier Mitxaus 9. Miguel Guruceaga

Larraungo Elkartea: 1. Martin Juanena 2. Javier Legarra 3. Juan Jesus Bildarraz 4. Unai Perez 5. Izaskun Olascoaga 6. Mariano Azpiroz 7. Juan Zabaleta 8. Manuel Etxarri 9. Eusebio Otermin

Arbide Taldea: 1. Mikel Rekalde 2. Carmen Burguera 3. Lorenzo Zubillaga 4. Ander Arraztio 5. Iñigo Estanga 6. Aitziber Otamendi 7. Ibon Urriaga

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 576
info@bidegoxo.com

Industrialgunea
Lekunberri 9 - 31870
LEKUNBERRI

Cyclos IREBER

BIZIKLETA DENDA ETA TAILERRA

Iñigo - 637 781 789
cyclosireber@yahoo.es - www.facebook.com/cyclosireber



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldikariaren bitartez!

KuxKuxean



Jakes
Martxoak 11, 6 urte
ZORIONAK JAKES! Ondo pasa zure urtebetetzean!

Gurutze Otamendi
Maiatzak 3
Zorionak eta urte askotarako!!! Ongi pasa zure eguna. Muxu haundi bat Egoitz, Eneko, Itxaso eta etxeko guztien partez!!!!



Unai Goñi
Maiatzak 9, 10 urte
*Zorionak Unai!
Ongi ongi pasa zure urtebetze egunean.
Muxu bat etxekoen partez.*

Naroa Elordi Ilarregi
Maiatzak 11
*Zorionak politte!! 4 urte bete dituzu!
Jarraitu hain maitekor eta alai izaten.
Egun ona pasa.
Muxu handi bat famili guztiaren partez.*



- 15 -

Mailope aldikaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu **mailope@labrit.net** e-postara hilaren 20a baino lehen.

asegurogintza
aseguru
aholkulariak
Zure ondarea
eta segurtasuna
baberako modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da

Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

**CONSTRUCCIONES
GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.**

Etxebizitzaren eraikuntza
eta errehabilitazioa

948 504 351 - 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com
Oztegin kalea 2, Lekunberri

Natur Bideen Eguna Plazaolaren bueltan

Maiatzaren 3an ospatuko da Natur Bideen Eguna Lekunberriko Plazaola tren geltokian. Urtero bezala ibilbide ezberdinak proposatu dituzte antolatzaileek egun horretarako. Adin tarte guztientzat egokitutako ibilbideak, oinez, bizikletan nahiz Nordic Walking-a praktikatuz egin daitezkeenak. Hain zuzen ere, Nordic Walking ikastaroa eskainiko da egun horretan bertan goizeko 10:00etan. Eta ondoren, 12:30ean kirol horri buruzko hitzaldia izanen da. 11:00etatik aurrera txutxu trena, puzgarriak, artisau azoka eta gehiago izanen dira tren geltokiaren bueltan.

Ehunka eta ehunka euskaldun bildu ditu Gazte Martxak

2.000 gazte inguruk parte hartu dute aurtengo Gazte Martxan. Lekunberritik ehunka gazte abiatu ziren joan den apirilaren 3an "Herria Mugargi. Gazteok martxan!" lelopean Ernaik eta Antzinak antolatutako martxan. Euskal Herri osoko txoko ezberdinetako gazteak bildu ziren gurean Berriozarrerako bideari ekiteko. Han Aberri Egunarekin amaitu zuten ibilbidea gaua lurtzunen pasa ondoren.



Larraunen etorkizunak arduratzen zaitu?

BiziLARRAUNbizi plataforma sortu berri du herritar talde batek. Larraungo herriek duela 100 urtetik hona bizi izan duten aldaketak asko izan dira, batez ere demografikoak. Garai batean nekazaritza eta abeltzaintza ziren herritar horiek desagertzen joan dira, gutxi dira jada horretaz bizitzen direnak eta gazteek kanpora atera behar dute lanera eta beste gabezia batzuegatik baita bizitzera ere. Gure herrien etorkizunaz arduraturik daude plataformako kideak eta larraundar guztion, lekunberriarrak barne, laguntza eta parte hartzea eskatu dute Larraun biziberritzeko. Talde plural eta egonkor bat osatu nahi dute, herrien etorkizuna politika eta ideologia ezberdinetatik haratago dagoelako. Horregatik ekainean egingo duten bileran parte hartzeko gonbidatu luzatu dute.



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia RIOJA

GALBURU

Alde Zaharra, 50 - 31570 LEKUNBERRI (Nafarroa)

Tel: 948 50 40 42 - 609 720 313

IORTIA

Juanjo Gaité García
Odontologoa Kol. Zbkia. 317

Tel. 948 467 603
Altsasu

Tel. 948 604 804
Lekunberri

HORTZ KLINIKA www.clinicaiortia.net

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA

Josita daude ekainaren 21ean hautestontzi erraldoia osatzen lagunduko duten eskualdeko oihal zatiak

Azken hilabeteetan herriz herri Jostunak dokumentalaren emanaldiak eskaini eta hainbat ekitaldi antolatu ondoren joan den apirilaren 26an ospatu zuten Ehuntze Eguna Araitzen eta Larraunen. Lekunberrin goizetik hasi ziren, informazio gunean informazioa eskaintzen eta batukadarekin jendea erakartzen. Arratsaldean Lekunberriko trinketean haur zein helduek oihal zatian

euren ekarpena egin zuten, marrazkiekin eta mezuekin. Ondoren, mahai ingurua egin zuten, Zelai Nikolas (Gure esku dago), Maialen Etxeberria (Ernai) eta Laura Perezekin



(Podemos). Oihalak josita utzi zituzten ere Araitzen. Beteluko eliz atarian margotu zituzten azken oihalak eta denak josita utzi zituzten ekainaren 21ean Iruñean josiko den hautestontzi erraldoia osatzeko.



- 17 -



Antsoenea
 ARDI LATXAREN ESNE GORDINEZ
 4% EGINDAKO GAZTA ONDUA, 34

TF: 948 51 34 68 - antsoeagaztak@gmail.com - Urtegi

gazta berria salgai!!

Atabal
 ahindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
 harategia

BERTAKO HARAGIA
 Txistorra, txorizoa,
 saltxitxak,
 sukaldaturako platerak.
 Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.
 Antigua Kalea N°7
 31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88
 maiteharategia@hotmail.com



“Musika ere beharrezkoa da garuna eraikitzeko eta autonomian laguntzeko”

- 18 -



27 urteko tolosarra da Unai Artola. Duela zazpi urte hasi zen lanean Aralar Udal Musika Eskolan. Biolin-jotzailea, hizkuntza musikalean eta haur hezkuntzan espezializatua, gizarte hezitzailea eta pedagogoa da. Gure eskualdeetako haurrak, besteak beste, bere eskuetatik pasa dira eta 4 urtetik 11 urte bitarterako hizkuntza musikala emateaz arduratzen da. Aurten musikari txikien tailerreko gidaria izango da.

Unai Artola 20 urterekin hasi zen Aralar Udal Musika Eskolan, berak eman ditu Musikari txikien tailerreko saioak.

6-18 hilabete bitarteko txikiak dituzu Lekunberrin, baina haran guztietako txikiak ere etortzen dira ezta?

Bai, Lekunberrikoak, larraundarrak, Araizkoak eta Ultzamako baten bat ere bada. Talde batean 12 ditut eta Leitzako beste taldean 9. Eta orain gutxi hirugarren bat ere osatu da, bost haurrekin, Lekunberrin.

Zergatik hain adin zehatza?

Txikiagoekin ere egin daiteke baina guk egindako formakuntzan hilabete horiekin hasten ziren, 6 hilabeterekin. Esan daiteke zarrapokan hasten diren fasea hasten denean hartzen ditugula. Denak talde berean sartu genitzake, baina hamabiko taldeak sortzen badira bereizi egiten ditugu adinak. Zarrapokan dabiltzanak talde batean eta oinez dabiltzanak bestean. Baina esan bezala, horrela suertatu da aurten, beraz, datorren urtean agian beste modu batera sailkatu beharko lirateke.

Zergatik lau saio eta ez, esaterako, lau hilabete?

Bartzelonara joan ginen orain urte batzuk, formakuntza egitera Marta Zuñiga irakaslea eta biok. Eskolaz kanpoko ekintza bezala eskaintzen da han eta Martak ezagutzen zuen bertako martxa. Ni berarekin joan nintzen, probatzera eta ikustera eta bertakoarekin txundituta gelditu nintzen. Noainen, Zangozan eta Beran ere egon gara tailerra eskaintzen. Harrera ikusteko hasi ginen 4 saiorekin, baina esan bezala, ez dugu hemen bakarrik ematen. Pixkanaka gure printzak bantzen ari gara eta jendearen eskaeren arabera ari gara mugitzen. Irakasle bezala ere, antolakuntza maila handia eskatzen du eta ordutegi finkoa. Horregatik denborarekin ikusiko da. Hau gure musikari txikien hirugarren urtea da.

Zertan oinarritzen da ikastaroa edo zein dira helburuak?

Argi izan behar da ez direla musika konbentzionala ikastera etortzen. Musika onuragarria da beste edozein hizkuntza bezala. Gainera musika ere beharrezkoa da garuna eraikitzeke eta autonomia horretan laguntzeko. Estrategia desberdinen arabera, alde batetik guraso eta haurren arteko harreman hori bideratzen da hainbat baliabideren bitartez, jolasen bitartez, ipuinen bitartez, erritmo jolasen bitartez... Helburuetako bat, beraz, entzumena



Tailerrean musika tresna txikiak esperimentatzeko aukera dute.



“Ez dira musika konbentzionala ikastera etortzen”

lantzen joatea da. Xilofonoak ere erabiltzen ditugu haur handienekin (nota batzuk beste batzuk baino onuragarriagoak dira). Eta batez ere, beraiei izugarri gustatzen zaien misterio, magia eta sorpresa hori erabiltzen dugu. Gurasoek ere hori ikusten dute, nola erakartzen dituen zera horrek.

Beraz, entzutea dago oinarrian.

Bai, era aktibo eta inkontziente horretan. Pixkanaka barneratzen doaz hori. Ez duzu inoiz ikusiko ume bat erritmoa lehenabiziko aldiz bikain eramaten, baina harreman bide horiek eta lantzen den bilateralitate hori, garuneko lanketa hori, izugarria da. Umeek lehen aldiz ikusten nautenean antiaju eta bizarrarekin... hori oso adibide ona da haurren erreakzioa gelan ere ikusteko, hau da: lehenengo danbor hotsarekin harritu edo entzun, gero gerturatu eta azkenik erabili. Bizitzan zehar ere beste harreman horietan hori egingo dute, ziur.

Bi mailatan sailkatu dituzue haurrak. Zertan bereizten da bata eta bestea?

Egoera hau gertatu delako bereiztu ditugu honela, besterik gabe. Baina zarrapokan ibiltzea adibidez, mugatzeko irizpide bat izan da, autonomia gehixeko badutelako. Gero bi hankatan daudenek beste autonomia maila bat dute, noski. Lehenengo talde honetan adibidez 12 haurrak berriak dira eta hori ere kontuan hartzekoa da. Baina datorren urteko musikari txikien tailerra beste era batera egongo da sailkatuta, alegia, egoera zein den ikusi ondoren.

Zein material erabiltzen dituzu?

Musika grabatua, ahotsa a capella, perkusio txikia (klabeak, marakak, kaxa txinatarrak, kriskitinak, krotaloak eta xilofonoak), darbuka, zapi koloredunak,

elkARRIZketa:

“Artisau profesionalak bezain ongi zizelkatzen duten ikasleak ditut”

ipuina egiteko txotxongiloak eta uneoroko ariketarako beharrezko baliabideak (magiarako kaxak...).

Formakuntza aldetik haurren mundu horretan ari zara espezializatzen, baina gelatan zerekin egiten duzu topo?

Ni hasieran oso eszeptikoa nintzen, lau urtetik beherako musika tailerrik ez nuen ezagutzen, Martak xaxatu ninduen arte. Ikusten nuena harrigarria zen. Baina gero nik esperientzia lortu arteko bide horren ondoren, buf! Errespetu handia ematen zidan gainera. Lau saioetan lortzen dena eta banatzen dugun materialarekin lortzen dena ikaragarria da, bada urte osokoa balitz pentsa. Haur guztiekin nabaritzen den hasieratik bukaerarako garapen hori txundigarria da. Gurasoek ere ikusten dute eta beraiek ere harritu egiten dira.

Zein da gurasoen papera tailerlean?

Klasea ongi ateratzearen erantzukizuna haurrena baino gehiago, gurasoena



“Guretzat errepikakorra edo aspergarria dena haurrentzat oso baliogarria da”

da. Gurasoak gauza pare bat haurrari esatearekin nahikoa da. Beraiek jarraibide batzuk eman behar dizkiete. Haurrak naturalak dira, ez dira hasiko kalean edo etxean egiten ez duten zerbait egiten. Gurasoak horrekin adi egon, edo aktibo egotea da euren papera. Azken finean laguntzea da eta kontrolatzea zer egiten duen musikalitate aldetik, eta batez ere irakasleari jarraitu. Guretzat errepikakorra edo aspergarria dena haurrentzat oso baliogarria da. Bestalde, demagun erritmoko ariketa bat lantzen ari garela eta gurasoa dantzan hasten dela; hori gertatzen bada, ariketaren funtzionalitatea galdu egingo da haurrentzat, hau da; haurrak jolasteko abestia dela ulertuko du eta ez erritmoa lantzeko. Gurasoek nolabaiteko beldurra dute, uste dute musika ikasi behar dutela edo beraiek ikasi zuten bezala ikasiko dutela. Hemen, gurean, batez ere bi-zipenak izaten dira. Ingelesa ikastea ona den bezala, musika ere bada.

Gurasoak tailerlean, beraz, ezinbestekoak?

Gordon-en teoriaren inguruan egindako ikastaroan, irakaslea adin desberdinetako haurrekin bakarrik egoten zen, gurasorik gabe. Baina Metodo bakoitzak dauka bere onura. Guraso eta umeen arteko harreman hori, afektibotasunaz gain, etxean daudenean ere, harreman hori beraien artekoa da. Gure ikastaroan gurasoen presentzia beharrezkoa da, afektibotasun hori ere lantzen delako eta musikak baliabide hauek ere ematen dizkigulako: kontaktua, goxotasun hori... horretarako ere balio du ikastaroak. Gainera bion arteko mundu-



Tailerlean hainbat musika tresna, testura zein kolore erabiltzen dituzte.



Gurasoen papera garrantzitsua da: besteen artean, umea eta gurasoaren arteko lotura hori ere lantzen da.

txoa sortzen da, ordubete horretan egotea. Baina esan bezala, gurasoak ez dira ezinbestekoak.

Gizarte hezitzaile bezala, beraiekin gehiago jolastu behar dugu?

Nire ustean, askotan gure haurren heziketa hezkuntza formalaren esku uzten dugu, hein handi batean... Gurasook gure haurrekin gehiago elkar eragin beharko genukeela iruditzen zait. Gaur egungo gizartean, geroz eta aukera gutxiago dugu gure haurrekin egoteko, beraz, daukagun une bakoitza aprobetxatzea garrantzitsua da. Eskolari bere garrantzia eman behar zaio baina handik kanpo beraiekin egoteari eta hezteari ere bai.

“Gurasook gure haurrekin gehiago elkar eragin beharko genukeela iruditzen zait”

Musikak zein onura dituela esango zenuke?

Geroz eta adin goiztiarragotan ikasten hasi, edozer dela, geroz eta hobea. 12 urteko batek teorikoki gehiago ikasiko

du zaspikoak baino, baina zaz-piko horrek bide horretan ematen dizkiozun bizipenak asko badira, lehenago eta naturalago ikasiko ditu adin bakoitzari dagozkionak. Entzumen aldetik ere kristoren ahalmenekin jaiotzen gara baina denborarekin galduz edo ixten goaz, inguruak zer ematen digun: hasieran ematen badizkiozu baliabide desberdinak ume horri garatzeko, askoz ere hobea. Musika, jakintzak, autonomia eta garunaren egitura garatzeko lagungarria da besteak beste, azterketa zientifikoek ziurtatzen duten moduan. Zergatik ikasten dira hobea hizkuntzak txikitatzen? Entzumenaren bitartez garatzen diren harreman eta egitura horiek puri-puritan daudelako.

Etxean zein ekintza gomendatzen duzu umeekin egiteko?

Musika entzutea oro har onuragarria da. Hala ere, modu kontziente batean barneratzeak, oso garrantzitsua da denetan bezala dakien norbaitek gomendatzea. Musikan gertatzen den gauzarik okerrenetarikoa hau da: pentsatzea edozerk balio duela musika ikasi eta barneratzeak. Ez da horrela: norbaitek erakutsi behar dizu. Bestalde, etxean, zein den musika aproposa? Musika Barrokoa oso ona da, erritmoa oso erraz antzematen baita. Baina esan bezala, haurreak erakartzen dituen magaleko abestiak eta adin hauetarako egokitutako musikak badu eskaintzeko asko. Erabiltzen ditugunak oso tempo zehatza dute, aproposa gurerako, argi-argiak. Gainera, tailerrean materiala ematen zaie gurasoei, eta hemen egiten duguna etxean egin dezakete, jakinda bere mugak dituela horrek ere (perkusioko txikiaren falta esaterako).

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
 gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
 Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

OKM
ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555



Kultura ezberdinak elkartrukatuz

Maiatzaren 4etik 29ra bitarte, Galesko landa-bizitzaren inguruko erakusketa izanen da ikusgai Lekunberriko Plazaola Tren Geltokian.

Naomi Heath artistak, urtebetez lan egin zuen galesez bizi diren hiru herri txikitako jendearekin eta erakusketa honetan, komunitate horretako gazte zein helduek eginiko hainbat elementu ikusi daitezke. Hala azaldu digu Meic Llewellyn antolatzaileak. Erakusketa bi hiz-kuntzetan egongo da egina, euskaraz eta cymraeg, galeseraz. Cymraeg-eraz hitz egiten duen galestarren kopurua, euskaraz hitz egiten duenaren antzekoa da eta Bro Ddyfi (erakusketa hau sortu den Galesko parte) hizkuntza horren gotorlekua da. Erakusketa honen haritik, Galesera itzuliko den beste erakusketa bat sortzea espero dugu bertan Lekunberri eta inguruko berri emateko. Azken batean, bi komunitate hauen artean dagoen harremana sakontzea da helburua.

Elkarrizketa hau Josune Garmendiaren laguntzarekin egin dugu. Bera aritu da itzultzaile lanetan.

Aurkez ezazue zeuen burua

Ni Celtic Neighbours izena duen erakunde txiki bateko koordinatzailea naiz eta bertan hizkuntza gutxituak hitz egiten diren komunitateetako alde lan egiten dugu. Ni neu ez naiz artista, erakusketa bi emakumezkoren eskutik sortu da, bi artista gazte, Naomi Heth eta Ciara O Flynn. Lehena Galeskoa da, Ceredigiongoa, bere lehen hizkuntza galestarra da, neurea bezala. Ciara berriz Irlanda mendebaldekoa da, Dingle-ekoa eta berak irlanderaz hitz egiten du.

Maiatzaren 4ean erakusketa bat aurkeztuko duzue Lekunberri... Ze erakusketa mota? Zer aurkituko du publikoak bertan?

Ni maiatzaren 1ean iritsiko naiz Le-

kunberrira eta Naomi maiatzaren 3an. Bera erakusketa prestatzen ibiliko da aste osoan eta maiatzaren 7an eguerdiko 12etan izanen da irekiera ofiziala. Erakusketa zabala izanen da, Ciararen margoak eta eskulturak egongo dira ikusgai, Naomiren argazki, bideo eta sorkuntza musikalak eta baita beraiek lanean ibili ziren hiru herri txikiak komunitateko lan dexente ere izanen dira. Naomik ia urtebetez lan egin zuen Komunitatean, herriko jendearekin harremana sendotzen, traktoreekin lan egiten, ardiak elikatzen eta larreak ereiten. Jendearen partehartzea oso garrantzitsua izan zen, erakusketa gara-tzen zihuan heinean parte hartu zuten euren gauzak utziz erakusketarako (euren argazkiak, haurren arropa, nekazal tresnak, sukaldoko tresnak etab.), beraz erakusketa eurena ere izan zen. Guk espero dugu Lekunberrin ere jendea berdina egiteko prest egotea, eta erakusketa jendea eta hizkuntzak elkartzeko leku bihurtzea.

Nolatan sortu zen Lekunberrira etortzeko aukera? Zergatik Lekunberrira?

Betidanik izan naiz Euskal Herriaren mireslea. Duela 20 urte Ingalaterran, unibertsitatean, irakasle nenbilenean, Azkoitiko neska gazte bat ezagutu nuen. Berak Euskal Herrira ekarri ninduenean, Astitzera eraman ninduen, lagunak zituelako bertan. Geroztik ia urtero etorri naiz Astitzera. Batzuetan Galesko musika taldeak eramaten ditut Euskal Herrira eta beti Astitzen jotzen dugu. Alderantziz ere egin izan dut, Euskal taldeak Galesera eramanez, orain gutxi esaterako *Bitartean* taldea eraman nuen hara.

Erakusketa aurkezteaz gainera hemengo komunitatea ezagutzeko interesa ere baduzuela esan didate... Zerk pizten dizue interes hori?

Galestar eta irlandar gehienak euskal kulturarekin liluratuta daude. Gure oso antzekoak ikusten zaituztegu eta miresmena sentitzen dugu zuen kultura eta hizkuntza altxatzeko duzun sendotasun eta determinazioarengatik. Guk askotan faltan sumatzen dugu hori guregan, zuen moduan gu ere inbaditurik eta zapaldurik



gauldelako eta gure hizkuntza mehatxatua delako, baina guk ez dugu indar eta baikortasun bera. Behin lagun euskaldun batek zera esan zidan: "Gu euskaldunok txingarra bezala gara, zenbat eta gogorrago estutu, orduan eta beroago sutzen gara!". Bestalde, kultura txikiak jendeak laguntasun handia erakusten dutela sentitzen dugu, elkarren beharra dugula eta elkarri lagundu behar diogula, asko ikas baitezakegu elkarrengandik.

Zenbat eguneko erakusketa?

Maiatzaren 4etik 29ra egonen da ikusgai. Eta espero dugu Lekunberriko erakusketa bat Galesera bueltan eramatea datorren urtean, horretarako lanean nabil Plazaolako Ana Andueza langilearekin.

Euskaldunek eta galestarrek antzekotasunik badutela uste duzue? Nolakoak zarete galestarrak?

Askotan bai. Cardiff Unibertsitateak argitaratu berri duen ikerketa batek dio galestarren gehiengoaren ADNtik gertuen dagoena euskaldunena dela. Uste dut gure kulturak antzekoak direla zen-tzu askotan, esaterako pertsonen arteko harremanei eta hizkuntzari, arteari nahiz literaturari ematen diegun balioa eta garrantzian. Galesen bizi garen eremua ere landa eremua da, nekazal eremua, baina Galesko hegoaldeko zati handi bat Biz-

kaiaren antzekoa da, lursailez eta mendiz inguratutako herri industrialak.

Celtic Neighbours Partnership taldeko koordinatzailea zara zu Meic. Zertan lan egiten duzue bertan?

Celtic Neighbours Mundu Zeltiarreko jatorrizko hizkuntzen artea garatzen duen agentzia da. 2005. urtetik lanean gabiltza, kultur lankidetzak sustatzen eta laguntzen, komunitate eta talde britainiar eta irlandarren artean trebetasunak partekatuz eta Europako beste komunitateetara ere zabalduz. Gure lanak artearen forma ezberdinak bertakotu eta gurutzatu ditu eta beti diseinatzen gabiltza aukera berriak eskaintzen jarraitzeko denbora askoan. Orain gutxi Galesen galiziar gaitari bat izan genuen gurean, Irlandatik aktoreak ekarri ditugu Eskoziara lanera, irlandaraz kabaret bat sortu dugu eta momentu honetan DSS2016-ekin lanean gabiltza 2016an eta 2017an Europako herri txikietan jaialdi eta emanaldi batzuk antolatzen.

Erakusketan zure laguntza emateko prest bazaude, edozein motatako objektu eta elementuak utziz, gustura jasoko dituzte Lekunberriko Plazaola Tren Geltokian. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 948 50 72 05 telefono zenbakira.

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
 Asteleheneetik larunbatara
 8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
 Igande eta jaiegunetan
 8:00 - 14:00
 Irurtzun

SAN MIGUEL
 Taberna-Jatetxea
 Arribe
 948 51 31 34

Elosta
 Ostaturua
 Pintxoak, karta, menuak, ogitartekoak eta plater konbinatuak
 Lekunberrin,
 Alde zaharra 44
 948604717


Araxesek emaitza onak jaso ditu Nafarroako Herri Kirol Txapelketan

Martxoaren amaieran bukatu zen aurtengo Nafarroako Herri Kirol Txapelketa eta urtero bezala bertan izan zen Araxes Herri Kirol Taldea. Aurten gainera lehenengoz hiru mailetan aritu dira. Unai Ijurko irakasleak azaldu digunez, kategoria guztietan konbinadan (lokotx-biltzea, txingak, zakua, laisterra eta arpana) aritu dira eta kadeteen kasuan, sokatiran ere bai. Konbinadan, hiru jardunaldiren emaitzak gehituta, kimuak eta haurrak finalera pasa ziren. Kadeteak berriz, 15 segundo eskasengatik, finaletik kanpo gelditu ziren. Finala Etxarri-Aranatzen jokatu zen, Kimuek laugarren postua lortu zuten eta haurrek berriz hirugarrena. Bestalde, apirilean hasi zen Nafarroako sokatira 4x4 txapelketa eta trontza txapelketan ere aritzekoak dira kadeteak. Maiatzaren 9an Beteluko Pilotalekuan jokatu da saioetako bat arratsaldeko 18:00etan.



Profesionalen artera saltoa eman du Ibai Martirenak

Ibai Martirena lekunberriarrak erremontean profesionalen arterako debuta egin zuen joan den maiatzaren 18an Galarreta pilotalekuan. Beste hiru erremontista berriekin debutatu zuen eta Goi-koetxea V.arekin oso partidu estua jokatu zuen Ansa II.aren eta Zalduaren aurka. Nahiz eta azkenean 34-35 galdu. Bikote berdinarekin ordea, zenbait txapelketa irabazi ditu dagoeneko Martirenak. Joan den martxoan Euskal Herriko Txapelketa irabazi baitzuten senior kategorian eta 2013an sub 22 mailako Euskal Herriko txapeldunak izan ziren. Zorionak Ibai!



Judoka gazteen lehenengo lorpenak

Astelehenero eta asteazkenero biltzen da Plazaola Judo Taldea Lekunberriko kiroldegian. 25 ikasle dabilta aurten judoa ikasten eta aurten lehenengoz Nafarroako Kirol Jokuetan parte hartu dute horietako zenbaitek. Miguel Inda irakasleak azaldu digunaren arabera, gutxienez hiru urte behar dira ikasten lehiaketetan parte hartzen hasteko. Miguel: *"Judoa oso kirol konplexua da eta jarraikortasuna eskatzen du. Aurtengo balantzea oso ona izan da, lehiaketan izen eman zuten lau ikasleetatik hiru dominarekin etorri baitziren etxera"*. Bi ikaslek kadeteen kategorian parte hartu zuten eta Adrian Dos Santos lekunberriarrak brontzeko domina irabazi zuen. Bestetik, infantilen mailan, Ainhoa Saralegui aldaztarrak ere brontzeko domina eskuratu zuen eta Amaia Saralegik zilarrezkoa Alebinen kategorian.

208 korrikalari bildu ditu Lekunberriko 27. Legoak

Egun eguzkitsua suertatu zen aurtengoan eta 208 korrikalari parte hartu zuten Arruizko Txikitoren omenezko Lasterketan. Horietatik 80 proba nagusian. Aurtengoan Marcos Yániz helmugaratu zen lehena gizonetzkoetan, 19 minutu eta 13 segundorekin eta emakumetzkoetan berriz Ana Ollo izan zen azkarrena 21 minutu eta 44 segundorekin. Eskualdeko korrikalarietarako dagokienez, 26 lagunek parte hartu zuten. Xabier Satrustegi iritsi zen lehena helmugara (00:20:36) eta atzetik Ander Arraztio (00:20:55) eta Mario Lavin (00:21:43). Emakumetzkoetan Maddi Sotil beteluarrek eskuratu zuen eskualdeko lehen saria, 27 minutu eta 13 segundorekin.

Proba nagusiaren aurretik urtero bezala gaztetxoek euren neurriko lasterketan parte hartu zuten. Kadeteen mailan, zazpi gaztek amaitu zuten proba, Lekunberriko Aritz Irastortza bigarren postuan gelditu zen, 16 minutu eta 44 segundorekin. 21 minutu eta 33 segundo behar izan zituen Oian Igoa aldaztarrak eta 22 minutu eta segundo bat Nora Unanua lekunberriarrak.

IZENA	HERRIA	DENBORA
Xabier Satrustegi	Errazkin	00:20:36
Ander Arraztio	Betelu	00:20:55
Mario Lavin	Lekunberri	00:21:43
Isaac Alvarez	Lekunberri	00:22:32
Juan Mari Irastortza	Lekunberri	00:23:31
Iñigo Garmendia	Betelu	00:24:35
Imanol Jaka	Larraun	00:24:48
Iñaki Alvarez	Betelu	00:24:52
Imanol Estanga	Betelu	00:25:23
Xabier Zubillaga	Lekunberri	00:25:24
Ander Igartua	Uitz	00:25:52
Unai Ijurko	Uitz	00:26:28
Ibai Soroa	Araitz	00:27:02
Maddi Sotil	Betelu	00:27:13
Oier Ijurko	Uitz	00:27:28
Iñaki Oyartzun	Larraun	00:28:06
Juan M. Martinicorena	Larraun	00:28:34
Andrea Etxarri	Arruitz	00:28:51
Irati Moreno	Aldatz	00:28:59
Gorka Azpiroz	Lekunberri	00:29:04
Maialen Ruiz	Lekunberri	00:29:15
Iñaki Albeniz	Lekunberri	00:29:26
Jon Ander Etxarri	Baraibar	00:31:30
Gorka Oreja	Uitz	00:31:30
Roberto Centeno	Lekunberri	00:31:35
Igor Mitxaus	Lekunberri	00:34:57



Organoa konpontzeko Denetariko ekitaldiak kontzertua Aldazko Ostatuan

Lekunberriko eliz abesbatzak kontzertua eskaini zuen joan den apirilaren 3an. Urtean zehar eskaintzen dituen kontzertuen artean hitzordu finkoa du Aste Santuetakoa. Javier Martijaren lehen kontzertua izan zen abesbatzako zuzendari lanetan. Hurrengo kontzertua Gorritin eskainiko dute Maiatza Kulturaleko egitarauaren baitan.



Aldazko Ostatuan hainbat kultur ekitaldi izanen dira maiatzean zehar. Hilaren 9an izanen da lehena, Jon Maia eta Oskar Estanga bertsoariekin egingo den bertso-afari semimusikatuarekin. Horrez gain, hurrengo asteburuetan Zamarrek "Zamarra eta Aterkia" bere lan berriarekin izanen da bakarlari. Gainontzeko ekitaldiez gainera, hilabete osoan zehar Palestiako eta Golaneko giza eskubideen argazki erakusketa izanen da ikusgai ostatuan bertan. Egitarau osoa Agendan (31or.).

Santa Engrazi egunean erromes

Apirilaren 16an izanen zen Santa Engrazi eguna, eliztarrek ordea, hilaren 19an ospatu zuten urteroko erromeria Uitziko basilizara. Joxe Mari Zabaletak eman digu ospakizunaren berri. Leizta, Lekunberri, Larraun eta inguruko jende ugari hurbildu zen ermitara, kotxez batzuk, oinez beste asko.



Eguerdiko 12:30etan Inazio Azkoaga apaizak meza ospatu zuen Uitziko abesbatzaren laguntzarekin eta Jon Pellejero organujolearekin. Ondoren ohiturari jarraituz, gazta, txorizoa eta ardoa banatu zituen herriak. Hortxe Joxe Marik berak ateratako irudia.

Maiatzean, kultura

Kultur ekitaldien hilabetea izan ohi da maiatza gurean. Urtero bezala egitarau ederra prestatu dute hilabete honetarako. Bisita gidatua, antzerkia, hitzaldiak, kontzertuak, argazki rallya... Adin guztietarako jarduerak daude antolatuta. Egitarau osoa Agendan (31. or.). Animatu eta parte hartu!



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.



> Plazaola Partzuergoa



20 URTE BIDEAN

SL-NA 301 1,45 ordu / 6,6 km

LEITZA-LARREA

Leitzalarreko basoetan barnako ibilbidea, Leitzako herri-mendian, herritik 8 kilometrora. Ibilbide honetan haritz gaitz eta mitiko baten hondarrak ezagutuko ditugu. 1888. urtean bota zuen ekaitz batek, eta zuhaitzak inguruari izena eman zion: Aritzaundi. Horretaz gain, Urdolako harrespilaren ondotik pasatuko gara, Sarasainzaharra izeneko burdinolaren hondakineta hurbiltzeko aukera izanen dugu, eta Izaietako izeiak bisitatuko ditugu. Beren edertasun eta berezitasunagatik Monumentu Natural gisa babestu dute, eta baten batek 45metroko garaiera gainditzen du.



0,00 ordu / 0,000 km [1] Ixkibar (590 m). Aparkalekua eta harrera tokia. Leitzatik heldu den pistatik eskuinetara ateratzen den bide bat hartuko dugu, eta gora joanez, berehala ezkerretara joanen gara, laritz artean doan bidexka batean zehar. Zurezko zubi irristakor bat pasatu eta berehala Aritzaundira ailegatuko gara.

0,10 ordu / 0,600 km [2] Aritzaundi. Haritz mitikoaren hondarrak. (Hemen, aukera dugu bidexka hartu eta aparkalekura itzultzeko). Ekialdera segituko dugu, pixkanaka gora eginez, eta berehala bidexka bitan banatuko da. Ezkerrekoak Izaietara eramanen gintuzke, baina eskuinekoa aukeratuko dugu, gora doana, Urdolarantz. 800 metrora pista bat aurkituko dugu, eskuinetara jarraituko duguna, goraka.

0,28 ordu / 1,800 km Burdinazko langa bat zeharkatu eta basoa utziko dugu.

0,38 ordu / 2,200 km [3] Urdolako zelaietan (730 m) harrespil bat eta orientatzeko mahai bat aurkituko ditugu. Markei kasu egin eta ezkerretara, beheraka, doan bidea jarraituko dugu.



Bidexka zenbaitetan ez dago argi, Laxaron-Mintegia izeneko hariztian barna joaten garelarik.

0,46 ordu / 2,700 km Eskailera moduko pasagunea alanbre hesian. Ezkerretara dugun pistatik joanen gara, beheraka. Aurrerago, pisten bidegurutzte batean eskuinetara hartu eta erreka zeharkatuko dugu.

1,00 ordu / 3,600 km [4] Sarasaingo iturria (600m) —errekaz bestaldean Sarasain-zaharra burdinolaren hondakinak ikusten dira—. Iturriaren ezker aldetik joko dugu, gora, bide estuan barna. Berehala jaitsi eta Olaeta erreka zeharkatuko dugu.

1,13 ordu / 4,400 km [5] Iribas. Aparkalekua. Aterpea. Sarasaingo erreka gurutzatu gabe, pista utzi eta, aterpearen atzeko aldetik, zelaian, ezkerretara dugun pista bateraino iritsiko gara (eskuinetara 70 metro eginez, bihurgunean, Koskagaingo iturria dugu). Erreka zeharkatu eta pixkanaka gora eginez Sarasainbizkarrera ailegatuko gara.

1,23 ordu / 5,100 km [6] Sarasainbizkar. Urumea eta Leitzaran ibaien isurialdeen banalerroa (aziendari pasatzen uzten ez dion parrilatik bestaldera, 70metrora, Sarasainbizkarreko harrespila dago). Pista jarraituz, pixkanaka behera eginez, Izaietaraino ailegatuko gara.

1,30 ordu / 5,600 km [7] Izaieta. Gomendatzen dugu izeidira bisita egitea. Bertan bada panel bat, erakusten dizkiguna zuhaitz eta zuhaixka espezieak eta inguruko ibilbide bat. Bisita bukatutik, pistatik jarraituko dugu Ixkibarreraino.

1,45 ordu / 6,600 km Ixkibar. Aparkalekua eta harrera tokia.

“Azpikoetxea erosi izana familiari omenaldi txiki bat egitea izan zen”

Cristina Torres donostiarra da jaiotzez baina ama etxarriarra zuen. Bere familiako hiru belaunaldi bizi izan ziren Azpikoetxean errentan eta 2002an etxea erosi eta bere bizitoki bihurtzeaz gainera landa-etxea ere badu bertan.

Cristina, zu jaiotzez donostiarra zaren arren Etxarriekin lotura berezia izan duzu beti...

Bai, nire ama, Eunegia Aldunzin, etxe honetan jaioa zen eta nire familia ehun urte baino gehiago daramatza. Bire birraitona eta birramona Iribastik etorri ziren, bere alaba zaharrenaren, nire amonarekin, eta Azpikoetxea hartu zuten errentan. Hemen jaio ziren gaintzeko zazpi seme-alabak. Oso familia xumea zen eta seme-alaba horiek handitu ahala kanpora joan ziren, bat Argentinara, bestea Hondarribiara, Iruñera... Nire amona Micaela Lasarte izan

zen bertan gelditu zena eta Etxarriko semea zen Miguel Aldunzinekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen, tartean nire ama.



ziren, mutilzaharra hirurak, baina txikitatik oporretan beti Etxarriara etortzen ginen eta niretzat oso berezia izaten zen. Primeran pasatzen genuen hemen, txekorrek, astoekin...

Eta osabak oraindik errentan bizi ziren?

Bai. Osaba horiek pixkanaka hiltzen joan ziren, baina bizirik jarraitzen zuten anaia txikiak eta nire amak errenta ordaintzen jarraitzen zuten, nahiz eta teilatua erabat erorita izan. Eta due-la urte batzuk jabeek erosteko aukera eman zigutenean niri ilusio handia egin zidan. Ama eta nire anaia konbentzitu nituen eta euren laguntzarekin erosi egin nuen. Niretzako Azpikoetxea erosi izana familiari omenaldia egitea izan zen. Etxe honek guretzat izugarritzko balio sentimentala izan du beti, gure sus-traiak hemen daudelako.

Eta etxearen zati bat landa-etxe bihurtu zenuen...

Bai, 2007an ireki nuen landa-etxea. Etxe handia da eta obra izugarria egin genuen eta etxearen zati batean landa-etxea egitea erabaki nuen. Ni kazetaria naiz eta 2006. urtera arte kazetari lanetan aritzen nintzen eta orain landa-etxeaz arduratzen naiz. Etxearen azken solairuan niretzako etxebizitza dut eta

Baina zure amak Donostiara alde egin zuen ezta?

Bai, hamabi urte besterik ez zituen Donostiarra lanera joan zenean. Donostian amonaren ahizpa batek, Maria Lasartek, jatetxea zuen eta iloba askok hara jo zuten. Azpikoetxean nire hiru osaba gelditu



**GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA**

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

**TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA**

Lagundu Mailope!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

**SK
SUAKONTROL
LEKUNBERRI**

Suaren kontrako plakak

Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

beheko eta lehenengo solairuan landa-etxea.

Zenbat lagunentzako landa-etxea da?

Hamar lagunentzako. Bost logela bikoitz ditu, bakoitza bere komunarekin eta horrez gain beste bi ohe eta bi sehaska jar daitezke. Gainera, logeletako bat egokituta dago. Etxea osorik eskaintzen da. Egungo kategori gorena bost izarretako da eta Azpikoetxeak lau izar ditu.

Eta zer moduz doakizu?

Ongi. Ireki nuenean, hasieratik jende asko etortzen zen, geroztik urterik gorrena 2014a izan da. Krisia dela eta asteburuko bezeroek behera egin dute. Udan Valentzia, Madrid edo atzerriko jendea etortzen da, frantsesak, australiarrak, ingelesak, alemanak, amerikarrak... Baina urtean zehar asteburuan etortzen den inguruko bezeroengatik bizi gara eta nabaritu egiten da.

Landa-etxeaz soilik ez dago bizitzarik, baina diru sarreratxo bat bada. Egia esan oso pozik nago bere garaian hartutako erabakiarekin, naturaz inguratuta bizitzea pribilegio bat dela iruditzen zait eta etorkizunean ere neure burua hemen ikusten dut.

Ze motako bezeroak dituzu? Zergatik aukeratu dute Etxarri?

Nire bezeroak nahiko familiarrak dira. Gehienak familia bereko gurasoak euren seme-alaba eta aitona-amonekin edo koadrila bereko bikoteak... Etxe berean elkartu nahi izaten dute, naturarekin kontaktuan egon... Nik askotan Aldatzera bidean dagoen Sabintxoren behi granjara joatea gomendatzen diet haurrek ikus dezaten behiak nola jezten diren, Bikainen gazta nola egiten duten, inguruan dituzten ibilbideak, Peru-Harri... Nik hemen ditugun eskaintza

turistiko guztia azaltzen diet. Hortik aurrera, bada jendea guzta asko egiteko asmoarekin etorri eta etxetik ia atera ere ez direla egiten eta alderantziz. Nik beti azpimarratzen dudana zera da, herri hau mendiz inguratuta dagoela, herria mendian amaitzen da eta hori luxu bat da, mendira joateko kotxerik hartu behar ez izatea.

“Gure asmoa pixkanaka eraikuntzaren arloan ere lan egitea da”

Anekdotarik?

Iaz Australiako MasterChef programatik deitu ninduten. Espainian eta Euskal Herrian barna reality show bat grabatzen ari zirela eta Azpikoetxean egun batzuk pasa nahi zituztela. MasterChef Australia 2012ko irabazleak eta finalista, programako errealizazioko langileak eta gidari bat etorri ziren egun batzuk pasatzera.

Eta behin bezeroek alde egiten dutenean garbiketa lanak egin behar...

Bai, egia esan denbora eskatzen du, ongi egiteko ia hiru egun behar dira. Oheko arropa guztiak garbitu, lehortu, plantxatu, sei komun garbitu, etxea garbitu eta gero kontabilitatea eta promozio lan guztia.



Publizitatean asko gastatzen duzu?

Bai. Batez ere interneteko atari garrantzitsuetan jartzen dut eta azkenean dirutza izaten da.

Gainera gehienak atari berdintsuetan ibiltzen zarete.

Aldarrikapen bat egitea gustatuko litzaidake, izan ere, uste dut Nafarroan baserri bereziak ditugula, bertakoak, eta gure ondarea izanik balio handiago eman beharko geniokeela. Ez da berdina 20 edo 30 urte dituen etxe batera joan edo 300 urte dituen etxe bat. Gure eskualdea historia izugarria duten baserrietaz beteta dago eta niri interesgarria iruditzen zait landa-etxe horiek eskaintzerako orduan bereizketa bat egitea.

Oso ongi legoke Nafarroako berezko baserriak diren landa-etxeak batzea eta bezeroen aurrean gure herrietan ditugun etxe hauen balioa erakustea. Uste dut gurean ditugun landa-etxeetan eskaintzen dugun prezioa duten kalitatearekin alderatuta izugarri ona dela. Bezeroek eurek askotan esan ohi dute: “Landa-etxe bat baino gehiago da hau!”.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

A small illustration of a person wearing a hat and using a long-handled tool, possibly a hoe or similar agricultural equipment.

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

A simple icon of a shopping cart.

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

An illustration showing two paint cans and a brush.

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitz

A colorful illustration of a red sports car, resembling Lightning McQueen from the movie 'Cars'.

“Hemen ez dute halako lotura esturik familiarekin eta jaio diren herriarekin”

Urtarrilean joan zen Ana Saralegi beteluarra New York-era. Urtebete emango du eta “Au Pair” bezala dabil lanean. Harlem-en bizi da, Manhattan iparraldeko auzo batean.

Noiztik zaude New Yorken eta zertan zabilta?

Duela hiru hilabete etorri nintzen New York-era eta Au Pair moduan nago lanean. Familia amerikar batekin bizi naiz eta beraiek lanean dauden bitartean, berain bost hilabeteko haurra zaintzen dut. Trukean, bidaia, eguneroko janaria, asteroko soldata eta kurtso bateko matrikula ordaintzen didate.

Bertara joateko aukera nolatan sortu zitzaizun?

Beti gustatu izan zait bidaiatzea eta beti imajinatu izan dut neure buruan atzerrian bizitzea. Baina esperientziak gain, ingelera ere hobetu nahi nuen. Lagun batek Au Pair programaz hitz egin zidan, Estatu Batuetako familia batekin bizi eta beraien haurrak zaindu, eta ideia gustatu zitzaidan. Agentzia bat da dena antolatzen duena. Programa honetan izen emanez gero, familia amerikarrek zure profila ikusten dute: ze esperientzia duzun haurrekin, hizkuntza maila, zaletasunak... Interesatzen bazaie, zurekin harremanetan jartzen dira.

Dozena bat familia desberdinekin elkarrizketak egin ondoren, New York-eko familia hau gustatu zitzaidan gehien, eta beraiek ere hasieratik nahi zuten ni hara joatea.

Zein da zure egunerokoa bertan?

Nire egunerokoa nahiko normala da. Goizean inguruko parke batera joaten naiz kirola egitera. Gero 9.30-18.30etara umea zaintzen egoten naiz. Eguraldiak laguntzen badu, kalera irteten gara, musika tailerretara edo auzoko beste umeekin jolastera. Lana bukatu ondoren, ingeleseko klaseetara joaten naiz, eta batzuetan lagunekin geratzen naiz. New York-en nahi izanez gero, egunero daukazu zerbait egiteko aukera. Asteburuak jai ditudanez, gauza desberdinak egiteko aprobetxatzen dut lagunekin. Merkatuetara joan, kontzertuetara, museoetara, Central Park-era, inguruko hiriak bisitatu...

Nolakoa da bertako gizartea?

Hiria oso handia da eta kultura guztietako jendea elkartzen da bertan. Bizi maila oso altua da, hori dela eta, lan ordu asko egiten dituzte. Orokorrean jendea oso adeitsua da, beti dago laguntzeko prest. Batez ere Harlemen, edozein jartzen zaizu hizketan eta oso irribarretsuak dira. Hemen ohikoena da 18



urterekin etxea uztea eta bakarrik bizitzea. Gu baino independenteagoak direla uste dut, ez dute horrelako lotura esturik ez familiarekin ez jaio diren herriarekin. Interes handia dute beraien kurrikuluma hobetzeko eta ez zaie asko gus-tatzen bizi osoan lanpostu berdinean egotea. Bestalde, asko erlazionatzen dira lagunekin, asteburu dugu norbait gonbi-datuta afaltzera edo bazkaltzera. Azkenik esan behar da oso patriotak direla. Estatu Batuetako bandera edozein lekutan ikus daiteke eta oso harro daude amerikarrak izateaz.

Zer da gehien harritu zaituena?

Momentu honetan arrazakeria egunero dago kalean, polizien eskutik izan diren azken hilketak direla eta. Baina harritu nauena da, afroamerikarren artean ere arrazakeria handia dagoela zurie-kiko. Telebista kate bat dago bereziki afroamerikarrei zuzendua, eta bertan ohikoak dira zurienganako mespretxuzko esaldiak.

Etxekoei, lagunei edo hemen dagoen inori mezuren bat bi-dali nahi badiozu, aprobetxatu!

Familiak badaki, asko botatzen ditudala faltan, baina oso gusto-ra nagoela eta lasai egoteko, denbora oso azkar pasatzen dela! Eskerrik asko idazten edo nitaz gogoratzen diren lagun guztiei! Asko eskertzen diet hango berriak kontatzea! Besarkada bat eta muxu handi bana denoi, batez ere Urtzi eta Unairi!

maiatza aldazko ostatuan

9 Larunbata: Bertso- Afaría Semimusi-
katua Jon Maia eta Oskar Estangarekin
21:00etan. Txartelak Salgai 18eurotan.

15 Ostirala: Zamar Kontzertua 19:30etan.

23 Larunbata: Arantxa ta Pantxo Gau Musi-
kala 23:00etan.

27 Asteazkena: Potxin Artista eta Txokolata-
da 17:00etan.

ekaina

5 Aldazko ostatuan: "Los Malos sueños de
René Petit" dokumentalaren proiektzioa
19:30etan. Aurkezleak Aitor Barba eta
Iker Aramendia.

21 Iruñea: Gure Esku Dago ekitaldi nagusia.
Tokian tokiko oihalekin hautestontzi er-
raldoi bat osatuko da.

agenda

AGENDA: Mailopeko agendan ekitaldiren bat edo deial-
diren bat agertzea nahi baduzu idatzi mailope@labrit.
net-era hilaren 20a baino lehen.

merkatu txikia

SALGAI

- Astitzen **bi ohe** (1,35 me-
tro), Lo Monaco koltxoiekin
batera. Baita, **gaztainon-
doko armario** eder bat.
Prezio onean. Interesatuak
deitu telefono hauetara:
687 841 313 - 948 33 92 67
(Patxi).

- **Banabarra** salgai Leitzan,
oso fina eta eguterakoa.
660 421 746 (Ekaitz).

-Azken urteko **siloko belar-
bolak** salgai Etxarri-Larraun-
en. 676221689, Joxe.

LAN BILA

- Lekunberrin emakume
bat prest **edozein lanetan
aritzeko**: etxeko lanak, per-
tsonak zaindu, etxebizitzan
garbiketak eta abar.
Emilia Dimitrova, 948 604
893 / 679 053 368 .

ALOKAIRU BILA

- Araitz eta Leitzaran bailaran
alokatzeko **borda, etxe edo
baserri** bila dabilen bikotea.
Amaia (661 658 767)

Atikoa alokatzen da Betelun,
198 m2, 450 euro hilean.
678 304 808 (Maribel).

III. Euskal Herria Mendi Erronka

MAIATZAK 29 OSTIRALA

- 17:00 19:30 - Dortsalen banaketa Leitzako plazan.
- 17:00 19:30 - Korrikalariaren azoka.
- 20:00-21:00 - Hitzaldia Leitzako zineman.

MAIATZAK 30 LARUNBATA

- 06:00-07:00 - Dortsalen banaketa Leitzako plazan.
- 07:30-07:45 - Korralittoa.
- 08:00 - Irteera.
- 14:00 - Lehen korrikalariak iritsi.
- 15:00-21:00 - Korrikalariei bazkaria.
- 20:00 - Sari banaketa.
- 21:00 - Azken korrikalariak iritsi.

AMAIRU BAR
ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

**Kantina
Rock**
948
60
48
21
KANTINA
bokatak, platerak eta...musika.....

Lagundu
Mailope!

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

Maiatza Kulturala

- 2 Larraungo Elizak **bisita** gidatua
- 3 **Natur bideen eguna**
- 8 **Kontzertua** Aralar Musika Eskolak Talde Instrumentalak Kantinan 18:00etan.
- 10 **Herri Urrats.** Autobusa zortzietan irtengo da Lekunberriko frontoi paretik.
- 15 **Hitzaldia.** Palestinako giza eskubideak. Plazaola tren geltokian 20:00etan.
- 16 - 17 **Bigarren eskuko azoka** Lekunberriko frontoian egun osoan zehar.
- 17 **VII. Argazki Rallya** Mitxausenean 10:00etan.
- 20 Ibarberriko DBH1 eta DBH2ko ikasleen **antzerkia** 15:00etan.
- 22 **Kontzertu tematikoa** Aralar Musika Eskolaren eskutik kirol degian 18:30etan.
- 23 Lekunberriko Abesbatzaren **kontzertua** Gorritin 19:00etan.
- 30 **Ur-festa puzgarriekin** igerilekuan 10:00etan.
- 31 **Mendi irteera** Ttutturre Mendi Taldeak antolatuta.